

BERANIEN ETA MADGHIEN

ARRASTOEN ATZETIK

**Berebereen etnogenesisia
(VI. eta VIII. Mendeak)**

2021-2022 IKASTURTEA

Gradu Amaierako Lana
Historiako Gradua
Filologia eta Historiako Saila

Ikaslea: Jone Manterola Bolumburu
Irakaslea: Jesús Lorenzo Jiménez

LABURPENA

Ipar-Afrikako berebere etniaren agerpena aspalditik aztertu izan den auzia izan da. Egile ugarik parte hartu dute VIII. mendean arabiarrek *barbar* deitu zuten populazio honen etnogenesiaren inguruko hausnarketan, baina ez da erantzun egi eta bakar bat eman. Izan ere, VII. eta VIII. mende bitarteko iturri falta, eta autore ezberdinek egokitu dizkion jatorri eta identitate mitikoak, herri honen historia misteriotsu egiten du. Lan honetan, Magrebeko berebere etniaren sorkuntza momentura hurbiltzea izango da helburu, nondik, nola eta zergatik osatu zen. Marko teorikoa osatzeko, XX. mendean garatu zen etnogenesiaren teoria ikertu da. Honen bitartez etnia bat izateko irizpideak landu dira, bere izaera eta ezaugarriak, eta teoriaren inguruan sortu diren ideia ezberdinak kontrajarri dira. Marko historikoan, VI. eta VIII. mende bitartean Ipar-Afrikako eremuan ematen den testuingurua hartu da kontuan. Bizantziar Inperioa, VI. mendean, garaiko potentzia handia izanik eragin handia izan zuen Ipar-Afrikako eremuan, eta Kaesareako Prokopio historiagilearen kronikan oinarrituz, bertako populazioaren kategoriaren azterketa egin da, zehazki, *mauriensia*. Ondorengo mendetan, VII. eta VIII. mendeak, arabiar-islamiar espantsioa eman zen, eta garai honetan eman zen Magrebeko biztanleen izen eta kategoria aldaketa, *mauritik barbar*-era igaro zen. Testuinguru honetan eman zen berebere etniaren kategorizazioa, baina bere benetako jatorria oraindik zalantzan dagoen auzia da, ez baitakigu *barbar* deitu zen populazio hau bizantziarren *maurien* izan ziren ala etnia berri baten eraikuntza eman zen. Erantzun posibleak emateko, oinarri teoriko eta historikoa izanda, etnogenesiaren teoria berebereengan aplikatu da, eta iturri historiografiko ezberdinak erabiliz, etnia honen agerpena noiz, nola eta zergatik eman den hausnartu da. Hala ere, erantzunak ez dira zehatzak, historiagileen artean ikuspuntu ezberdinak sortzen direlako, batez ere VI. mendean *maurien* iturriak gutxitzen hasten diren bitartean, *barbar*-en erreferentzi historikoa IX. mendean agertzen delako. Era berean, etnia honen inguruko kronikak IX-XIV mende bitartean sortu ziren, eta bere identitate eraikuntza garai honetan ematen da jatorri tradizional bat ezarri. Ez dago garai hartako bereberek idatzitako iturririk, gehienbat hauek hizkuntza ez idatzia zutelako. Hortaz, Antzinaroko *maurien* nahiz Erdi Aroko *barbar*-en iturri historiografikoak kritikoki begiratu behar dira. Honen inguruko baieztapenak emateko oraindik lan handia egitea geratzen da eta beharrezkoa da berebereen inguruko jatorri tradizionalaren, Beranien eta Madghien ondorengoak direnaren, arrastoa jarraitzea.

HITZ GAKOAK: bereberek - etnogenesisia - kontaeraren eraikipena - antropologia - Magreb

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Marko teorikoa: Etnogenesiaren teoria	4
2.1. Etnogenesiaren teoria eta bereberek	
2.2. Etnogenesi kontzeptuaren definizioa	
2.3. Etnia izateko irizpideak	
2.5. Wolfram-en hiru etnogenesi tipo-ak	
2.6. Etnogenesisia, prozesu ireki bat	
3. Marko historikoa	8
3.1. Hurbiltze historikoa	
3.2. <i>Barbar</i> hitza: antzinako asmakizuna ala islamiarra ?	
3.3. <i>Maurien</i> eta <i>barbar</i> -en arteko historia	
4. Etnogenesisia bereberei aplikatua	9
4.1. Berebereen etnogenesiaren abiapuntua	
4.2. Bereberek, <i>mauriak</i> al dira?	
4.3. Tradiziozko jatorria etnia sorkuntzaren bide	
4.4. <i>Mauri</i> eta berebereen irudia iturri idatzien arabera	
4.5. Berebereen etnogenesisia: <i>bereberizazioa</i> eta/edo iraultza sinbolikoa ?	
4.6. Hizkuntza, bateratze prozesuaren aliatua ?	
4.7. Indar-harremanek etnia definitu	
4.8. Etsai baten aurrean sortutako gens-a	
4.9. Berebereen erresistentzia etnia sorkuntzaren bide ?	
5. Ondorioak	21
6. Bibliografia	22

1. SARRERA

Egungo Magreb-eko eremua, ezagutzen ez den garaitik izan da populatua. Zehazki, lan honetan, VIII. mendean arabiarrek berebere bezala deitu zuen talde etnikoaren azterketa egingo da, bere etnogenesiaren hausnarketa. Horretarako, XX. mendean garatu zen etnogenesiaren teoria ikertu da, eta ondoren hau bereberei aplikatu. Bide honetan, berebere kategorizazioaren marko historikoa kontuan hartuta, teorian azaldu diren zalantzekin bat etnia honen identitate eta formaziora hurbildu da. Mendeetan zehar, lurralde honetan bizi izan diren biztanleek herri ezberdinen influentzia eta dominazioak izan dituzte. Harreman hauetan kanpotik etorritakoen kronikak deskribatu eta osatu dute bertakoen historia. VI. eta XIV. mende bitartean sortu diren kronikak sortu dute bere tradiziozko jatorria. Baina iturri hauek interpretatu behar dira, gehienbat Magrebeko populazio hau ez delako izan bere historiaren narratzailea, ez dago garai honetako populazio honen iturri idatzirik. Era berean, beste iturri arazo baten aurrean aurkitzen gara, *mauri*-en inguruko iturriak VI. mendean gutxitzen hasten diren bitartean, *barbar*-en iturriak IX. mendean agertzen dira, eta honela, VII. eta VIII. mende bitarteko iturri hutsunearekin aurkitzen gara. Beraz, oraindik bizirik dagoen historia da, interpretazio anitz dituena.

Ezin da zehazki zehaztu noiz eta nola eman zen bereberen kristalizazioa. Historialarien artean, oraindik ere, berebere etniaren zergatia eta jatorria eztabaida jarraitu batean murgilduta dago, eta kronikari batetik bestera narrazioa aldatzen denez, historiagile hauen artean ere hainbat postura ezberdin aurkezten dira. Iturri historiografikoak Magrebeko berebere etniaren kontakizuna nola irakurri duen aztertuko da. Modu honetan, hainbat galdera sortzen dira, esaterako, zeintzuk diren berebereak, zein irizpide eman ziren etnia hau sortzeko edo lehenagotik emanda zegoen identitate batean oinarritutako etnia izan zen ala identitate berri bat osatu zen.

2. MARKO TEORIKOA: ETNOGENESIAREN TEORIA

2.1 Etnogenesiaren teoria eta bereberek

Berebere etnia noiz, nola eta zergatik sortu den aztertzeko, XX. mendean Reinhard Wenskus-ek eta Vienako Historiako Eskolak garatzen duen etnogenesi teoria aplikatu da. Teoriaren esanahia, talde linguistiko edo etniko zehatz baten agerpena eta formazioa izendatzeko erabili da, bereziki V. mendean agertu ziren tribu germaniarrei aplikatu zitzairen. Hala ere, kontzeptuarekin batera sortuko diren debate historiografikoak, berebere etniaren inguruko etnogenesi hausnarketa egitera bultzatuko du. Planteamendu honetan, lehenik etnogenesiaren teoria azalduko da, bere definizioa eta ezaugarri ezberdinak adieraziz.

2.2 Etnogenesi kontzeptuaren definizioa

Etnogenesi terminoa, Maria Marcela Mantelek (2017: 72) aipatua, XX. mendeko 60. hamarkadan garatu zuen Reinhard Wenskus historiagile alemaniarrek, Herwig Wolfram eta Walter Pohl ere, ikertzaile eta historiagileak, etnogenesiaren kontzeptuarekin hertsiki lotuta daudelarik. Wenskus-en bilaketa, erromatar Inperioko azken mendeetan sortu ziren *gens* berrien eraketa-prozesuari azalpen bat aurkitzeko nahiak bultzatua izan zen. Honela, etnogenesi kontzeptua erabili zen tribu germaniarren etnizitate nozioa birplanteatzeko. Kontzeptuaren garapena Vienako Historiako Eskolarekin lotu izan da, eskola honek garatu izan baitu tribu germaniarren identitate hausnarketa. Bai Wenskus eta bai Wolfram-ek proposatutako etnogenesi teoria, edozein *gens* germaniarren agerpena edo sorrera, transformazioa eta deskonposizio prozesua bezala aldarrikatzen da. Prozesu horren bidez, giro oso heterogeneoko pertsonak erakarri egiten dira komunitate etniko berri baten barruan, eta konbentzitu egiten dira, ahoz transmititutako antzinako tradizioengatik, jatorri komuna dutela, eta, beraz, balio eta arau jakin batzuen arabera bizi beharko luketela (Pohl 2002: 221). Ikerkuntzak, etnogenesi kontzeptuaren bitartez herri germaniar ezberdinen jatorria aztertu zuten, eta honen arabera, prozesu hau irekia izan zen, behin betiko amaitu ez delarik.

2.3 Etnia izateko irizpideak

Etnia terminoa *ethnos* grekotik eratorria eta latindar *gens* hitzaren sinonimoa da. Hauen definizioa tribu konglomerazio bati erreferentzia egiteko erabili da. Teorian azpimarratzen diren bi kontzeptu hauek, anbiguitasun semantikoa planteatzen dute, giza multzoen sorta zabala adieraz baitezake. Honela, ikertzaileari erosotasuna ematen dio honen erabilerak, zehaztugabetasun horren ondorioz.

Wenskus historiagiletako bat izan zen garai hartako etnien jatorrien definizioarekin apurtu zuena. Teoria zaharrak zioen etnia odolean oinarritutako komunitatea zela, talde homogenea, jatorrizko komunitate biologikoa zuena. Kontran, berak aldarrikatu zuen etniak talde heterogeneoak zirela, eta haien izaera, funtsean, politikoa zela, hauek erakunde politikoak zirela azpimarratzen. Wolfram-ek, *gens*-a arma-herri gisa definitu zuen, hau da, herri hori gerra-bertuteak eta jarrera beligerantean oinarrituta zegoela, eta etnogenesisia ez zela odolaren bitartez ematen (Wolfram 1990: 791 - 800).

Wenskus-en planteamenduarekin bat datorren beste historiagile bat, britaniar espezialista Patrick J. Geary da, Vienako Eskolaren jarraitzailea. Honek adierazten du, K. o. II. mendean mundu germaniarraren berregitura sakona eman zela, eta honen bidez, antzinako tribuak desagertu edo berrantolatu egin zirela. Modu honetan, herri berriak sortu ziren eta elkartzeko berriak antolatu ziren, esaterako frankoak edo alanoak, horrela beste tribu-talde txikiago batzuek, babes bilatuko zuten talde handiagoekin batera. Hala, Geary-ren arabera, K. o. II. mendearen azken bi hamarkadetan historia germanikoaren etnogenesisi prozesuaren aldirik aktiboena izan zen. Hau, migrazioaldian, *gens* ezberdinak politikoki eta ideologikoki bateratzeko beharrak sortua izan zela azpimarratzen du, jatorri komunaren mitoa sortzeko arrazoi bera bezala aurkeztuta. Izaki germaniar horiek sortu ziren bere kideek bere talde etniko kategoria politiko eta moral erromatarrek erabiliz definitu zirenetik. Honela, tribu germaniarrak *gens* bihurtu ziren behin erakunde organizatua izanda, nolabaiteko lurralde-egonkortasuna eta egonkortasun soziopolitiko lortu ondoren bilakatu da tribua *gens* izatera (Geary 1983: 53).

Planteamendu honek etniak talde heterogeneoak direla eta bere esentzia politikan oinarritzen dela baieztatzen duen bitartean, beste historiagile kritikoek etnizitate izaera instrumental eta politikoa dela baztertu eta, *etnia organikoaren* teorian oinarritzen dira, hau da, etnia biologikoki definitua dagoela. Alexander Callander Murray-k dio iturriek adierazten dutela jaiotzaz norbait frankoa edo erromatarra den (Kaspersky 2015: 226). Esaterako, Kaesareako Prokopiok zioenez, jaiotzak definitzen zuen godoa zen (HGV: 129). Beraz,

badirudi jaiotza-irizpidea, garrantzitsua dela germaniarrak bere erresumetako kategoria etnikoan sailkatzeko.

Historiagile batzuen arabera, *gens* terminoak esanahia zehaztugabe eta apolitikoa duen bitartean, besteek bere ezaugarri politikoa azpimarratzen dute. Bere aldetik, Sergei M. Shirokogoroff antropologo errusiarrak, azpimarratzen du *ethnos*-a fenomeno ireki bat dela, eta beraz, honen zehaztasun zailtasunak etnogenesiaren identifikazio eta definizio erantzuna irekia bihurtzen duela (Kaspersky 2015: 206).

Wenskus-en planteamendua jarraituz, honek zioen antzinako tribu germaniarrak ez zirela etnia desberdinak, baizik eta aliantza desberdinak, elite dominatzaile batek zuzenduak. Elite dominatzaile honek tradizio luze baten eramaile izango zen, *Traditionsträger* hitzerekin definitu dena (Pohl 2002: 221). Walter Goffart, historialari estatubatuarra, kritikoa izan da hipotesi honekin. Historialariak ez du zalantzan jartzen *Traditionskern* baten existentzia, baizik eta tradizio hori iragan urrunetik transmititu izana (Mantel 2017: 75). Beraz, zalantzan jartzen da tradiziozko gune horiek benetan noiz ematen diren, eta aztertu behar dena da nola genealogia mitikoek eta jatorrizko kontakizunen osagai bereizgarriak, laguntzen duten etnia baten eraikuntza bidean.

2.5 Wolfram-en hiru etnogenesi tipok

Wolframek hiru etnogenesi tipo deskribatu zituen, prozesu hau gerta dadin azaltzeko. Lehengoan dio, talde batek ezin duela gehiago bere herrian bizi eta ibai bat edo itsaso bat gurutzatzen duela, edo etsai boteretsu baten aurkako borroka gertatzen dela. Gertaera hauen ondorioz, beharrezko baldintzak sortzen dira tradiziozko gune bat sortzeko eta *gens* berri bat sortzeko, jendetsuagoa eta indartsuagoa. Bigarrenengan, kultu edo erlijio aldaketa azpimarratzen du. Azkenik, hirugarrenengan, gertaera nagusia etsai boteretsu baten aurkako garaipena bada, garaitua lehen etsai bihurtzen da eta garaipena benetan historikoa bihurtzen da (Wolfram 1990: 800 - 801).

2.6 Etnogenesisia, prozesu ireki bat

Azkenik, argi dago etnogenesi kontzeptua oso berritzailea izan zela bere garaian. Eztabaida historiko ugari sortu dira teoria honen harira, eta funtsean zehaztugabe izaten jarraitzen duen prozesua da. Etnogenesisia noiz, nola eta zergatik eman den interpretatzeko, komunitateen bereizgarritasuna azpimarratu behar da, bere espazio geografikoa eta

historikoa. Nahiz eta honen teoria herri barbaroen harira garatu den, bere inguruan planteatu diren teoria askotarikoak talde etniko ezberdinei aplikatu eta sakonki hausnartu beharko da. Komunitate edo tribu baten etnogenesia bizirik jarraitzen duen prozesua da, hipotesiez betetako sarea.

3. MARKO HISTORIKOA

3.1 Hurbiltze historikoa

Egungo Magreb¹ definitzeko erabiltzen den espazio geografikoa, denbora luzez, Europako eskualdetako hizkuntzetan, *Barbaria* hitza erabili da. Hau, ekialde arabiarrarekin lotura gutxitzeko erabilia izan da, ebidentzian uzteko bertako komunitateak Europaren eta haren kolonia berrien arteko jatorri zaharra duela (Bremond 1942: 106). Beraz, eremu hau definitzeko arazoa, arabiar edo Europako loturarekin du zerikusia. Ikerketa honetan, Ipar Afrikako eremuari Magreb izenarekin egingo zaio erreferentzia, kasu honetan, inongo ikuspuntu orientatzaile edo Europarekiko lotura egiteko asmorik gabe. Eremu honek, egungo Maroko, Aljeria, Tunez eta Libia-ko lurri egingo die erreferentzia.

3.2 *Barbar* hitza: antzinako asmakizuna ala islamiarra ?

Ramzi Rouighi-ren arabera, *barbar*² hitza, Erdi Aroko sorkuntza da, Arabiar jatorria duena eta Magreben bizi direnei erreferentzia egiten dioena (Rouighi 2011: 49). Ekialdetik datorren definizioa da, eta Greziar edo Erromako herentziarik ez du. Beraz, honen arabera, herri konkistatuen klasifikazioak sortu duen etimologia da, Magrebekoa ez zen orori, hau da, arabiarrei eta ekialdeari, egiten diola erreferentzia. Hala ere, askotan aurreratu izan da *barbar* grekozko *barbaros*-etik edo latinezko *barbarus*-etik zetorrela eta filiazio horretatik eratorritako konnotazio negatiboen eramailea zela. Bertsio honek defendatzen du *barbar*-ak arabiar-islamiko konkistaren lehenagotik existitzen zirela, eta hau gertatzean soilik izena

¹ Mendebaldea, eguzkia sartzen den lekua. Egile arabiarrek emandako izena geografo modernoek *Berberia* bezala izendatzen zuten eremuari. Tripolitania, Tunez, Aljeria eta Maroko osatzen duen eremua osatzen du. Egile batzuek al-Andalus gehitzen zuten izendapen honi, *Magrib* hitza erabiliz (Magreb) islamiar domeinuan zegoen mendebaldeko eremua izendatzeko. *Magrib* arabieraz *Mašriq*-en oposaketa da, eguzkia ateratzen den lekua, ekialdea (Maïllo 1996: 143).

² «*brbr*» arabiar erroitik, berebere hitzera erromanizatu da (Rouighi 2011: 49).

aldatu zutela. Baina Rouighi-ren proposamenean, *barbar* hitza erabili aurretik, ez zela existitzen hitz arabiarrik egungo Magreb-i dagokion eskualdean eboluzionatzen zuten populazioen multzoa izendatzeko aldarrikatzen da³. Berak dio, berebere eta Magreb nozioen aurretik, inork ez zuela uste Afrikako ipar-mendebaldeko biztanleak unitate bakar batekoak zirenik (Rouighi 2011: 1). *Barbar* edo *barbaros* termino latin eta greziarrak ez dutela inoiz zeregin edo rol hori bete dio.

Kategorien bateratze hori ezin da izen-aldaketa huts gisa bezala aztertu, bai izenak bai sailkapenak ondorio eraginkorrak baitituzte gizartean, eta bere etnizitate prozesuan (Nef 2021: 16-17). Beraz, eta iturriak frogatzen ez dutenez, bereberen etimologia haratago doa, eta oraindik zehaztu ezin daitekeen auzia da.

Hala ere, posible izan zen *barbar* terminoak antzinateko lexikoko konnotazioak hartu izana. Azken kasu honetan, arabiarrek *barbaros* edo *barbarus* terminoak hartuko zituen, grekoa edo latina menderatzen ez dutenei bezala, arabiarra hitz egiten ez dutenei egingo ziela erreferentzia; zentzu luzeago batean, mundu zibilizatua bereizten zuen gizarte-instituziorik ez izatean du pisua, zeinetan antzinatean barbarotzat hartzen den gizartea definitzen duen. Azken hipotesi hau Yves Modéran-ek emandako irtenbidea da. Esanez, arabiar-musulmanek Afrikako hirietako biztanleek landa-eremuan bizi zirenak izendatzeko erabilitako terminoa erabili zutela, eta azpimarratzen du eskualdean *barbari* - *barbar* bezala ahoskatzen zela. Hala ere, Goi Erdi Aroan, Magrebeko biztanleak izendatzeko *barbar* terminoa aukeratzea justifikatzen duten iturri gutxien artean Ibn Jaldūn da hau argien justifikatzen duena. Honek esaten digu, berebereen hizkuntza arraroaren ondorioz datorkiola izendapen hori. Honela azaltzen du honen justifikazioa:

« *Ifrīcos, fils de Caīs-Ibn-Saiḫī, l'un des rois [du Yémen appelés] Tobba, envahit le Maghreb et l'Ifrīkiā, et y bâtit des bourgs et des villes après en avoir tué le roi, El-Djerdjīs. Ce fut même d'après lui, à ce que l'on prétend, que ce pays fut nommé l'Ifrīkiā. Lorsqu'il eut vu ce peuple de race étrangère et qu'il l'eut entendu parler un langage dont les variétés et les dialectes frappèrent son attention, il céda à l'étonnement et s'écria: 'Quelle berbera est la vôtre !' On les nomma Berbères pour cette raison. Le mot berbera signifie, en arabe, un mélange de cris inintelligibles; de là on dit, en parlant du lion, qu'il berbère, quand il pousse des rugissements confus* » (KI: 168)

³ Rouighi-k gogoratu zuen Magrebetik kanpo dokumentatutako *Barbar* bakarrak, *dār al-Islāma* eraiki baino lehen, *Barbaria*-ko biztanleak direla Afrikako adarrean (Rouighi 2011: 52 -53).

Bertan kontatzen da, *Ifrîcos* Ipar Afrikako lurraldea konkistatzean biztanleria “arraro” batekin topatu zela, eta hauek hitz egiten entzutean bere ezustean ateratako esaldiak eman diola izena etniari. Honela, *barbar* etimologia, Magreben hitz egiten diren hizkuntzen sonoritate espezifikoeekin lotzen da, hala nola, lehoi baten orroaren definizioarekin. Ez dakigu zehatz mehatz nondik datorren *barbar* hitza, eta ezta ere arabiarrek zergatik erabili zuten termino hau Magrebeko biztanleei izendatzeko. Ondorengo hitzetan, berebere hitza erabiliko da, islamiar garaian sortu zen *barbar* kategoriari erreferentzia egiteko.

3.3 Maurien eta barbar-en arteko historia

Ipar Afrikako espazio geografikoan antzinarotik tribu anitz bizi izan dira, bizantziarren garaian *mauriak* deituak izan zirenak, arabiar konkistarekin berebere izendatuak, eta azkenik, hauekin lotura apurtzeko eta bere egungo identitatea aldarrikatzeko *amazigh* izendatu direnak. Tribu hauek, oraindik zehaztu gabe dagoen iraganetik, lurralde hauek okupatu zituzten, kultura eta komunitate tribal anitzetan. Fredrik Barth-ekin bat eginez, talde etniko hauetan ematen diren talde aniztasunak ulertzea eta zerk egiten duen etnia bat osatzera azaltzen saiatzea faktore ezberdinengatik baldintzatua egongo da (Barth 1976: 12). Beraz, berebere etnia osatzeko emango diren pausuak, bere printzipio heterogeneoan oinarrituta emango da, identitate-kristalizazio horren elaborazio historikoa oinarri eta ezaugarri heterogeneo baten baitan ulertu behar da.

Posible da Ipar Afrikako tribu hauek historian zehar jasan dituzten inbasio, okupazio eta konkista jarraituen ondorioz osatu izana. K. o. I. mendetik erromatar Inperioaren parte izan ziren 429. urtean bandaloen eskuetara igaro arte. 533. urtean bizantziar Inperioaren goraldia zela eta, Justiniano enperadorearen eskutik Ipar Afrika hauen mende geratu zen VII. mendean arabiar-islamaren espantsioa lurralde hauetara iritsi arte. Inperio, komunitate eta Estatu konkistatzaile hauek, mendeetan zehar, bere burua Magrebeko biztanle hauetaz ezberdintzen ziren, honela, hauei talde etniko ezberdin batean definituz, kategorizazio ezberdinak emanez, *mauriak* eta berebereak. Ordea, zaila da ezartzea antzinarotik definizio hauek populazio osoari etnia bezala izendatzen zuten (Modéran 2003: 4-12).

Bizantziar okupazio eta arabiar-islama konkista bitartean emandako aldaketa honetan, berebere izeneko etnia baten etnogenesisia prozesua eman zen, ordea, ez dakigu etnia bezala lehenagotik honen identitate kontzientzia eta historia existitzen zen, ala etsai berri baten aurrean sortzen den prozesua izan zen. Trantsizio historiko honetan, *mauriak* bateratu gabeko tribu ezberdinak zirela pentsa daiteke eta berebereak bere ondorengoak direla, ala

bereberizazio prozesuarekin bat, hots, islamaren espantsioarekin bat, etsai oposaketaren kontura, sortu zen berebere etnia berri bat izan zela (Rouighi 2021: 29). Azken ikuspuntu honetan, berebereen etnogenesisia arabiarren konkistaren testuinguru historikoan sartzen da, baina iturri falta dela eta, ezin da jakin prozesu hau lehenagokoa izan zen, eta *maurien* garaian jada berebere etniaren identitate prozesuaren barne zeuden. Zalantzan dago, zergatik, noiz eta nola eman zen tribu anitz eta zabal hauen bateraketa prozesua.

VI. mendetik aurrera, bizantziarren okupazioarekin eta gehienbat arabiarrek Ipar Afrika okupatzen duten momentutik, berebereen etnogenesisi prozesuaren momentu nagusitzat hartu izan da, batez ere, Magreb populatzen duten biztanleen izendapen aldaketa ematen delako, eta honekin batera, identitate kontzepzio bateratu baten prozesu amaiezina hasten delako. Ikerketa honen zailtasunaren aurrean hainbat galdera sortzen dira, eta hauek zalantza handiago bat sortzen dute: ba al dago etnia sortzen den momentu bat, eta beraz etnogenesisia?

4. ETNOGENESIA BEREBEREEI APLIKATUA

« *Rares sont les peuples comme les Berbères dont les origines ont été recherchées avec autant de constance et d'imagination* »

Gabriel Camps (1995: 35)

4.1 Berebereen etnogenesiaren abiapuntua

Etnogenesiaren marko teorikoaren barne, berebere *gens*-a noiz sortu zen planteatzeko orduan, *gens* honen agerpen, transformazio eta deskonposizio momentua noiz eman zen aztertu behar da. Prozesu honen abiapuntua momentu historiko ezberdinetan ezarri izan da. Rouighik hau arabiarren konkista momentuan ezartzen du (Rouighi 2021: 29). Bere arabera, konkistatzaile etsai berrien aurrean, kategoria aldaketarekin bat, tribu berebereak bere etnia eraketa prozesua hasiko zuten, etsai berri honengatik desberdintzeko. Antzinateko egileak ez zituzten herri bakartzat hartzen eskualde horietan bizi ziren komunitate, gizarte, tribu edo herriak, eta bere ustez, “Magreb” (*al-Magrib*) eta “Berber” (*al-barbar*) nozioaren agerpenarekin gauzatu zen ideia hau. Beraz, bere ustez, kategoria berri honek, lehen aldiz Magrebeko herrialde bati egingo dio erreferentzia. Hemen dagoela etnia honen etnogenesisi abiapuntua aldarrikatzen du, nozio hauen sorkuntza hasten den unean. Izan ere, *barbar*

kategoria baino lehen ez dago Ipar Afrikan etnia osatzen duen entitate geografiko, politiko, ekonomiko edo kultural bakarra.

Modu honetan, arabiar musulman lehen konkisten ondoren hasi zen Afrikako ipar-mendebaldeko *bereberizazio* hau, bertako biztanleena eta iraganekoena. Beraz, ideia hau jarraituz, eta probokatzailleak izan nahi bagenu, esan genezake berebereak ez zirela existitzen Magreben arabiar musulman konkista baino lehenago. Gutxienez ez izen horrekin, ez populazio multzo homogeneo gisa definitzen zelarik. Abiapuntua hemen ezartzean, onartzen da kategorizazio berri bat ezarri zen momentuan giro oso heterogeneoetako pertsonak komunitate etniko baten barruan sartu zirela. Rouighi-k aldarrikatzen du, arabiar konkistaren bitartez sortutako berrantolaketa politiko eta sozialak eragin zuela berebereen etnogenesi prozesua⁴. Antzinako tribuak desagertu edo berrantolatu egin ziren, etnia berri baten sorkuntza emanez. Honela, VII. mendeko konkista izango zen kristalizazio honen unerik aktiboena.

Ordea, Harry T. Norris-ek berebereen etnogenesi abiapuntua konkista baino lehenagokoa dela azpimarratzen du, eta beraz, *maurien* garaian jada etnia honen identitate sorkuntza hasita dagoela (Norris 1982: 1). Bere arabera, konkista arabiarra hasi zenean jada Ipar Afrika berebere herri bat zen.

4.2 Berebereak, *mauriak* al dira?

Adituen artean zabalduko ikuspegia kontuan hartuta, Gabriel Campes-ek azaltzen du arabiarren berebereak erromatarren *mauriak* direla (1995: 113). Ulermen horren arabera, berebereak konkistatu beharrean, arabiarrek *mauriak* konkistatu zituzten eta izen berri batez deitu zituen. Honela, historialariaren zeregina sinplea da: *maurien* esanahia aztertzea iturri greziar eta latindar haietan, konkista arabiarra baino lehentxeago idatzita, eta iturri arabiarretako *barbar*-ren esanahiekin konparatzea. Zoritxarrez, Afrika Iparraldeko iturri latindar eta greziarrak VI. mendean txikitzen hasi ziren: *barbar*-en iturri arabiarrek, berriz, IX. mendean baino ez ziren agertu. Iturriek *mauri* edo *barbar* deitzen dietenez, aditu batzuek uste dute jende bera zela. Kasu horretatik abiatuta, historialariak berebere kategoria erabiltzen ohitu dira ipar-mendebaldeko afrikarrak izendatzeko, edozein garaitan delarik. Hauentzat, berebereak ziren Afrika ipar-mendebaldeko indigenak, arabiarrek, bizantziarrek, bandaloek, erromatarrek eta feniziarrek konkistatuak izan zirenak (Rouighi 2011: 50). Beraz, azterketa

⁴ Dominiquek (2021: 11) aipatuta.

puntua bereberek aurre-islamiar garaikoak ziren azaltzea da, eta arabiarrek erabilitako *barbar* kategoria *mauriek*in bat etortzen den aztertzea.

Rouighi-ren diskurtsoa bereberek ez direla *mauriak* oinarritzen da, eta *Barbaria* eta barbaroen antzinateko iturriak hartuta, *mauri* eta *barbar*-en erreferentziak ezberdinak direla azaltzen du, eta beraz, ezin daitekeela giza talde berdinez hitz egin. Rouighik dionez, K. o. I. eta III. mendean datatutako *Periplus of the Erythraean Sea*-ko greziar autoreak, *Barbaria* izeneko eskualde bat deskribatu zuen Egiptoko Berenike hiriaren hegoaldean, Itsaso Gorriaren kostaldean. Mende bat geroago, Ptolomeok (K.a 90 - K.a 168), geografo famatuak, *Barbariar* itsasoa Arabiako Badian, Itsaso Gorrian kokatzen du. Azken honek Rhapta hiria, *Barbariako* metropolia bezala deskribatu du. Herakleako Marcianus-ek, V. mendean bizi zena, *Periplus of the Outer Sea*-n, hau erabiltzen du etnia bat eta baita itsaso bat deskribatzeko. VI. mendean, Kosmas Indikopleustes, Indiako itsas bidaiarengatik famatua, *Barbaria* Arabiako golkoan kokatzen du, bere garaikide Bizantziar Estebanek egin zuen bezala. Argi dago, sei mendez, greziarrek eta erromatarrek modu sendo eta erregularrean deskribatu zutela *Barbaria* Afrikako ekialdeko kostaldean. Arabiar aurre-islamiarrek ere bazekiten barbaroa eta *barbaria* Itsaso Gorriaren beste aldean zegoela, Arabiaren aurrean. Ibn Jaldūnek aipatuta, Imrū⁹ l-Qays VI. mendeko poetari famatuak, *barbar*-en eta bere zaldien erreferentzia egiten du bere poema batean. *Barbar* erabilerak greko-erromatar testu geografikoekin bat egiten du. Ez du herri zehatz baten erreferentzia egiten, baizik eta *barbar* izeneko Afrikako ekialdeko kostaldeko eskualde edo hiri bateko biztanleei.

Are gehiago, Ibn ‘Abd al-Ḥakam IX. mendeko historialariak, *barbar* merkatu bat aipatzen du Egiptoko Fustāṭ hirian (FIAb: 101). Beste behin ere, *Barbaria* Ekialdeko Afrikako eskualdea da, Fustāṭ hiriaren hegoaldean kokatzen dena. Beraz, Rouighi-k segurtasunez ondorioztatzen du izena Afrika ipar-mendebaldeko konkista arabiarren aurrekaria dela. Antzinako iturri berantiarretako barbaroak ez bezala, zeinak ia mundu ezaguneko edozein tokitan dauden herri hasiberriei dagozkie, arabiar aurre-islamiarren barbaroa eremu geografiko zehatz batean agertzen da. Hala, pentsa daiteke garai aurre-islamiarretan arabiarrek *barbar* erreferentziak egitean pentsatu zutela Afrika ekialdeko biztanleak zirela, ez ipar-mendebaldekoak. Honela, Rouighik azaltzen du, *barbar* hauek *mauriak* ez zirela, eta beraz, arabiarrek ikuskera zaharrago horri uko egin ziotela eta beste bat hartu zutela Afrikako ipar-mendebaldea inbaditu zutenean (Rouighi 2011: 52 - 53). Beraz, antzinako iturrietan *barbar* bezala egingo zitzaaien erreferentzia Afrikako ekialdean kokatzen ziren biztanleei, eta suposa daiteke arabiarrek ezagutza hau izanda Afrika mendebaldekoiei ere honela egingo ziela erreferentzia, Rouighi-ren ustetan, hauek *mauriak* ez zirelako

(Rouighi 2019: 19). Era berean, Yves Modéran-ek defendatzen du, VI. mendean, *mauriak barbar*-ak direla esateak konplexutasun kultural handia dakarrela, eta beraz, baieztatu ezin daitekeen auzia dela (Modéran 2003: 5).

4.3 Tradiziozko jatorria etnia sorkuntzaren bide

Wenskus-ek, germaniar *gens* berrien jatorria aztertu zuen bezala bere etnogenesisia noiz eman zen aztertzeko, beharrezkoa da berebereen nahiz *maurien* jatorri mitikoa azterzea, Erdi Aroko eta Antzinaroko kronikez baliatuta, prozesu hau nondik eta noiztik datorren ulertzeko. Antzinako erromatar eta greziarren *mauriek*, ezta arabiarren bereberek ez dute dokumentazio idatzirik utzi, eta testu greziar edo arabiar hauetan bilatu behar da, bere historia mitikoaren informazioa (Modéran 2003: 15).

Berebereen jatorriaren auzia, lehenik eta behin, berehala interesatu zitzaaien egile arabiarrei, genealogia lan espezifikotan. Eraikuntza genealogiko horiek oso desberdinak badira eta testu batetik bestera aldatzen badira ere, bat egiten dute Magrebeko biztanleei ekialdeko jatorria emateko borondatean. Helena De Felipe-k ondo erakusten du nola talde tribalen izendapen-prozesuak, tokiko edo ekialdeko tradizioetatik abiatuta, ekialdean sustrai guztiak dituzten genealogiekin bat egiten duen. Genealogia horien xehetasunetan eta aldaera ugarietan sartu gabe, islamaren mundu sozial berrian *barbar* auziari begira hauen jatorria azaltzeko sistema ezberdinak bereizten dira: jatorri biblikoa edo / eta gizaki taldeen migrazioa. Diskurtso honetan ez dago berebereen jatorri autoktonoa aldarrikatzen duenik. Arabiar musulman konkistatzaileak eta hauen ondorengoak ez diete Ipar Afrikako jatorria aitortzen (Nef 2021: 21). De Felipek *barbar-en* jatorrizko azalpen ezberdinen puntu komuna identifikatu du, aldarrikatzen, autore guztiek ez dituztela hauek Magreben beti bizi izan direnik kontsideratzen (De Felipe 1990: 394).

Hala ere, garrantzitsua da baieztapen hori zehaztea, izan ere, Ibn Jaldūnek, gai honi buruzko tradizio guztiak erabat manipulatu ausartu gabe, azpimarratzen du horietako asko guztiz sinesgaitzak direla, eta iradokitzen du *barbar*-ak aukera asko dituztela Magreb aspalditik populatzeko, egile gehienek iradokitzen dutena baino askoz gehiago (Nef 2021: 21-23). Michael Brett eta Elizabeth Fentress historiagileek, biztanle autoktonoak diren aldarrikapena egiten dute, autore arabiarren kontrari, zeinak uste zuten hauek beste leku batzuetako etorkinak zirela. Tribu hauen autoktonotasunaren aldeko agertzen dira, jatorriz Ipar Afrikako herria dela azpimarratuz (Brett eta Fentress 1996: 5).

Honako honen aurka agertzen den iturrien artean IX. mendeko Ibn ʿAbd al-Ḥakam historiagile egiptiarra dugu. Bere *Futūḥ Ifrīqiya wa-l-Andalus* obran berebereen ekialdeko jatorria azpimarratzen da :

« *Les Berbères étaient en Palestine. Leur roi Jâlūt ayant été mis à mort par David -Dieu le sauve- ils émigrèrent vers le Maghrib, jusqu'à ce qu'ils parvinssent en Lûbiya (Libye), et en Marâqiya (Marmarique), deux provinces de l'Égypte occidentale, qui ne sont point arrosées par le Nil, et se contentent de l'eau du ciel. Là, ils se fractionnèrent. Les Zanâta et les Maghîla poursuivirent leur route vers le Maghrib, et s'établirent dans les régions montagneuses. Les Luwâta pénétrèrent dans l'Ant'âbulus (Pentapole) -le territoire de Barqa- ou ils se fixèrent. Ils se fractionnèrent, et se répandirent dans cette région du Maghrib, jusqu'à ce qu'ils atteignissent le Sûs. Les Hawwâra s'établirent à Labda, et les Nafûsa sur le territoire de Sabrata. Les Rûm, qui se trouvaient en ces lieux, durent évacuer le pays, mais les Afâriq, qui étaient au service des Rûm, demeurèrent, moyennant une contribution dont ils s'acquittaient envers tous ceux qui subjuguèrent leur pays* » (FIAa: 37)

Kontakizuna irakurrita, ezin da aldarrikatu etnia honen jatorria autoktono edo *indigena* dela. Hala ere, lehen testu arabiar hauek iraganeko jatorria beren historiaren barneko sorkuntza baten barruan sortzen diren kroniketan kokatu beharko ditugu, iturri hauen interpretazioa eginez. IX. mendeko konkista testuinguru garaian, beharrezkoa zen, berebere kategoria eraikitzen ari zen momentu batean, tribu estrukturen deskribapena egitea eta hauen jatorria ezartzea, islamaren espazioan eta denboran kokatzeko. Horrek, aukera ematen du *ummaren*⁵ antolamenduan bereberei lekua esleitzea, zientzia genealogikoaren bidez. Gainera, diskurtso mitikoak etnogenesi prozesurako beharrezkoak izan dira identitate etnikoa definitzeko orduan. Identitate horrek, beraz, bere antzinatasuna defendatzen duen hein batean, arabiarrekin zerikusia ez duten diskurtso identitarioa sortzen da (KI: 185).

Iturri arabiarretan sortu ziren genealogiek, tradizio luzeko eramailea garatzea eragin zuten. Kroniketan azpimarratzen da, berebere tribuek antzinan jatorri komun bat zutela, *Berani-ak* eta *Madghi-ak* tribuen ondorengoak zirela (KI: 168) eta, beraz, tribu anitzez osatutako *gens* bateratu bat osatzen zutela. Honek, eponimo baten ondorengoak zirela

⁵ Musulmanen komunitatea. *Umma* hitzak, « ama » nozioaren bitartez, « komunitate matrize » konnotazioa dauka (balore erlijioso guztien eramailea, lurraren gaineko Jainkoaren erresuma aurreratzen duena). *Umma*, Mahoma profetak fundatua izan zen Medinan, eta berehala benetako fededunen gauza eskusibito bihurtu zen, *umma* komunitate musulmana bihurtu zelarik (Maillo 1996: 250).

aldarrikatu zuen, honen inguruko sinesmena sortzen. *Traditionskern* bat egoteak, hau da, tradizio luzeko elite dominatzaile bat, tribua ezarrita dagoen lurrarekin lotzeaz gain, tribu berebereen arteko lotura ezartzen da, hauen bateraketa prozesua eragiten. Tradizio identitario bat ezarri zen momentuan berebere etnia jatorri luzeko tradizio baten herentzia zela frogatu zen.

Era berean, eta garaiaz aldatuz, bizantziar iturriek, ekialdeko migrazio joera baieztatzen dute. VI. mendean, zehazki 533. urtean, bizantziar Inperioa Ipar Afrikako kostan ezarri zen, bandaloen aurkako borrokaren ondoren. Bizantziar historiagile garrantzitsuenetako batek, Kaesareako Prokopiok, VI. mendeko *maurien* jatorriaren inguruan idatzi zuen, bere *Historia de las Guerras* obran, *Guerra Vándala*, III liburuan gordetzen dena. Bere kronika jarraituz, *maurien* jatorria feniziarra dela esaten du, eta beraz, iturri honek ere, Ipar Afrikako biztanleen ekialdeko jatorri mitikoa ezartzen du (HGV: 245 - 248). Hala ere, Yves Modéran-ek defendatzen du, VI. mendean, *mauria* ziurrenik afrikar autoktonoa izango zela, erromatarrak ez erromanizatutzat hartu zuelarik (Modéran 2003: 5).

Oraingoz, ezin da zehaztu non duen berebere etniak eta honek osatzen dituen tribuek bere jatorria. Hala ere, VI. mendean, *maurien*, eta IX. eta XIV. mendeetan, *barbar*-en inguruan sortu zen bereberen tradizio jatorria, elementu garrantzitsua bihurtu zen etnia honen identitatea baieztatzeko. Eta honela, berebere herria, nahiz eta tribu anitzez osatu, baliteke konbentzitu egin zela, antzinako tradizioengatik, jatorri komuna zuela, eta beraz, etnia bat osatzen zuela. Jatorri komunaren ideiak, etniaren identitatea formaltzen eta indartzen du, eta VI. mendeko Prokopioren idatziak eta IX. mendeko lehenengo genealogien lanek, jatorri mitikoaren sorkuntza kontsolidatu izan zuen, etnia bat osatzearen bidean lagundu zuena.

4.4 Mauri eta berebereen irudia iturri idatzien arabera

VI. eta XIV. mendeko iturriak, jatorri mitikoa azaltzeaz gain, *mauri* eta berebereen irudia ere azaltzen dute. Garaiaren eta autorearen arabera, deskribapenak ezberdinak dira, eta bakoitzean emandako datuak, etnia honen identitatea nolakoa zen hausnartzera bideratzen du.

Kaesareako Prokopiok, VI. mendean, *Guerra Vándala*, III liburuan, bandaloen eta *maurien* arteko konparaketa egiten du. Bandaloak luxuaz eta bizitza oparoaz ohituta zeuden bitartean, Ipar Afrikako tribuen bizitza gogorra eta basatia azpimarratzen du: etxola itogarrietan bizi ziren tribuak, baldintza hauei ohitutakoak, eta, animalien bizimodura asko gerturatzeko zirenak. Lurrean lo egiten eta basati hutsak zirela azpimarratzen du (HGV: 27). Bere deskripzioan dio, ez zirela arropaz aldatzen: «*visten una gruesa capa y una áspera*

túnica» (HGV: 229). Bizantziar Inperio eta Europako beste lurraldetan duten elikagai luxuzkorik ez zutela, esaterako ogia edo ardoa, edo garia lantzeko eta jateko modua animaliena zutela. Irudi honek azpimarratzen du *mauriak* basatiak bezala ikusten zituztela.

« *De todos los pueblos que nosotros conocemos, el más dado al lujo es el de los vándalos, mientras que el de los moros es el más miserable* » (HGV: 228)

Flavio Cresconio Corippo-k, poeta afrikarrak, *La Johannine* obran Afrika errromatar berantiarreko lurraren eta jendearen deskribapena egiten du, bertan haren inpresioak erregistratzen direlarik. VI. mendeko Afrika, hiltorian dagoen lurraldea dela dio, «*L’Afrique chancelait, fatiguée, sous le poids d’un grand danger*» (DBL: 19) bertan bizi den gatazka borroka etengabeen ondorioz. Beste aldetik, kronika osoan zehar, Prokopioren ildo berdina jarraitzen du, *maurien* karaktere basatia azpimarratzen:

« *Le ravageur maure est chassé de tous les rivages et, tremblant, est foulé aux pieds par l’ennemi qui lui fait face. Terrifié, il abandonne en fuyant les villes assiégées, et trouble par la crainte, il se rassemble dans les hautes montagnes, il établit et fortifie de sinistres huttes dans les forêts. Les vallées creuses et les collines derrière elles sont remplies de peuples innombrables, et ils couvrent largement les plaines et les fleuves sinueux. De là, s’enfuient toutes les races de bêtes sauvages, craignant les épieux du Maure cruel, et misérables* » (DBL: 33)

Honela, 529 eta 546 urte bitarteko *maurien* errebolta garaiko deskripzio honetan, Prokopiorengan baino are alderdi negatiboagoa erakusten du, askotan adjektibo gutxiesgarriak erabiltzen dituelarik. Era berean, Corippo-k, *maurien* jantzien irudia ematen digu:

« *Et les Maures n’ornent pas leurs bras des manches d’une tunique, aucune boucle n’entoure un ceinturon, ils poussent leurs bataillons sauvages au combat sans ceinture, et portent chacun deux lances au fer très solide. Ils portent une couverture effrayante, descendant des épaules, suspendue et attachée à leurs membres; un manteau de lin entoure alors leur tête affreuse, soutenu par un nœud solide, et leur fruste soulier maure est foulé sous leur pied noir* » (DBL: 36)

Denbora lerroa jarraituz, Mendebalde osoko erromatar Inperioaren erortzea eman zenean, prozesu horretan, Afrika erromatarraren apurka-apurkako desagertzea gertatu zen, barne-gainbeheraren prozesu luze baten ondorioz, non bortizki amaitu zen Europa mendebaldeko barbaroen inbasioek eraginda. Honela, VIII. mendean dār al-Islāmaren espantsioarekin bat, Magrebeko berrantolaketa politikoa eman zen, zeinak XIV mendera arte, dinastia ezberdinen menpe egon zen, horietatik dinastia berebereak, Almorabide eta Almohadeak. Koiuntura historiko berri honetan, Ibn Jaldūn autorearen XIV. mendeko berebereen deskripzioa dugu. Hala ere, garai honetan *bereberizazio* prozesua jada oso garatua dago. *Histoire des Berbères et des dynasties musulmanes de l'Afrique septentrionale* obran zehar berebereenganako gertutasuna eta errespetua sentitzen delarik, berebere aberatsen deskripzioa egiten du. Gameluan ibiltzen den taldea dela, nomadak direla eta daramatzaten arropa guztiak artilezkoak direla dio, marradun jantziak, eta bereziki *burnous* beltza daramatzatela (KI: 167).

VI. eta XIV. mendeko kronika hauetan, bai *maurien* eta berebereen irudiak islatzen dira. *Mauriak*, berebereak direla baieztatzen badugu, lehenengo azaldutako irudia izango zen gerora berebere talde etnikoa osatuko zuena. Ez dakigu, ordea, VI. mendeko *maurien* irudi hau, konparagarria den berebere etniaren kristalizazioarekin. Hala ere, kronika hauek autore bakoitzaren testuinguruan idatziak daude, eta beraz, gertutik analizatu behar dira. VI. eta VIII. mendeetan emandako berebereen iturri hutsune falta hauen deskripzio kultural eta soziala jakitea oztopatzen du. Izan ere, bi mende hauen artean gertatzen den berebereen ohituren aldaketaren berri ez dugu, eta beraz, ezin da baieztatu berebere etnia osatzen duen lotura kulturalik egon zen ala ez. Beraz, iturri hauek baliogarri izango dira, Magreb okupatzen zuten biztanleen kanpoko irudi bat izateko baina ez lotura etniko bat egiteko.

4.5 Berebereen etnogenesisia: *bereberizazioa* eta/edo iraultza sinbolikoa ?

Allaoua Amara-k (2021: 55 - 56) aipatuta, Rouighi-k hainbat ikertzailek landutako gaiari berriro heldu dio: *bereberizazioa*. Bertan erakutsi nahi izan du bereberia *bereberizazio* prozesu baten emaitza dela. Hau VIII. mendean al-Andalusen hasiko zen, Kordobako Omeyyarek egindako gizarte-kategorizazioaren ondoren. Honen ustez, prozesu hori hurrengo mendean zabaldu zen Magreben, hainbat talde etniko kategoria batean biltzeko. Prozesua motela izan zen, pixkanaka existitzen ziren tribuak berebere etnia osatzera eraman zuena. Honela, Ḥawwāra tribua Ḥawwāra bereberia bihurtu zen, Zanāta, Zanāta bereberia, eta honela, dena berebere bihurtu zen. Kategoria horiek guztiak iragan urrunean proiektatu

zituzten eta hauen inguruko historia eta etnizitatea eraiki zen. Une batean, egiaztatu beharrezko baldintzetan, arabiarrek beren Magreb berebereekin populatzen hasi ziren. Eta hau, Rouighi-k deitzen duen bezala, *bereberizazio* prozesua da.

Annliese Nef-ek *bereberizaio* hau, iraultza sinboliko baten testuinguruan garatu zela azpimarratzen du. Iraultza hau hainbat pausutan ematen da (Nef 2021: 16). Eraikitzen ari den *dār al-Islām*-a, integratzen ari diren espazioen berrizendapen prozesutik igarotzen da. Honela, Ipar Afrika, Egipto eta Libia ekialdeko zatia izan ezik, Magreb izenarekin izendatzen da. Era berean, espazio hau okupatzen duten biztanleei izen berri bat ematen zaie, *barbar*-ak. Azken honetan, ez da soilik hitz etimologiko atribuzio batetik igarotzen baita ere talde honi ezartzen zaion genealogia batetik, eta beraz, etnia identitate eta kontzientzia batetik. Ikuspuntu horretatik, VIII. mendeko *barbar* kategorizazio berria, iraultza sinboliko baten emaitza da, eta Ipar Afrikako konkista arabiar-musulmanarekin eta Estatu berri baten sorrerarekin batera ematen da, *dār al-Islām*aren agerpenarekin. Beraz, garai konkretu batean ematen den aldaketa prozesua dago, aldaketa soziala, politikoa, eta beraz kognitiboa. Nef-ek (2021: 20) aipatu du, Pierre Bourdieu-k erakutsi duela mundu berri baten sorrera iraultza kognitibo batetik pasatzen dela, iraultza sinboliko batean ezinbestekoa dena. Azken honek iraultza sozialaren auzia darama, estruktura sozialak eta estruktura mentalak batera doazelako. Guztiz konfigurazio eta kontzientzia ezberdin batekin ezarriko den etnia sorkuntza da. Arrakasta horrek, ordea, gizarte-ordena berri baten etorrerarekin batera doazen botere-eztabaidak eta borrokak sortuko ditu, iraultza sinboliko horrek sortu zituen gatazkak azeleratutakoak izango direnak.

4.6 Hizkuntza, bateratze prozesuaren aliatua?

Arabiarrak iritsi aurretik ez zegoen Magrebeko tribu guztiak batzen zituen hizkuntza homogeen bat, ez zegoen idazkera sistema propio bakarrik, eta gainera, hizkuntza hau ez-idatzia zen (Nef 2021: 23). *Dār al-Islām*aren Magrebeko konkistak, erlijio berri bat ezarri zuen bezala, bertan hitz egiten zen hizkuntza anitzen ordezkapena egin zen, arabiera inposatuz. Arabiarrak Afrika ipar-mendebaldean kokatzean, arabiera eskualdeko biztanle gehienek hizkuntza bihurtu zen, berebereak bere herrialdeko gutxiengo bihurtuz. Berebere hizkuntza edo hizkuntzak, berebere herriaren garapen prozesuarekin bat garatu da eta honen kontserbazioa berebere identitatearen manifestazio handiena izan da, faktore linguistiko eta etnikoa bateratzeraino (De Felipe 1997: 17).

Beraz, pentsa daiteke, VIII. mendean hizkuntza izan zela, berebere etnia bateratzera eramango zuen pieza garrantzitsu bat. Berebere kategoriak biltzen zituen tribu ezberdinek, bere hizkuntza propioa zuten, baina arabiarren begietan, hizkuntza hauek ezaugarri batean biltzen ziren: bere izaera arraroan. Honela, VIII. mendeko eratzen ari den mundu batean, hizkuntza bateratze prozesuaren oinarritzat bihurtu zezakeen, kategorizazio linguistiko hau, beren identitatearen marka bilakatzean. Beraz, Vienako Historiaren Eskolarekin bat eginez, bereber etnia bateratzen duen hizkuntza bat izateak, talde linguistiko bezala definituko zuen, eta honela, posible izango litzateke berebere etnogenesiaz hitz egitea.

4.7 Indar-harremanek etnia definitu

Rouighi-k azpimarratzen du Ibn Şagīr-ek⁶ ez zuela *barbar* terminoa erabili, 907 eta 909 artean idatzitako Rustamtar dinastiaren garaietako kronika idatzi zuen arte. Rustamtarrak Ibadia Imamen dinastia osatzen zuten, eta Magreb erdialdea mende eta erdi batez gobernatu zuten beren kapitaletik, Tahert-etik. Urte hauetan, dinastiaren konkista eman zen fatimatar şīʿī-en eskutik, hauek Tahert eraso eta gero. Tahert-en gertatzen diren gatazka politiko erlijiosoen harira hainbat tribu berebere aipatzen ditu, esaterako, Rustamtarrak, Nafūsak, Ḥawwārak edo Luwātak. Rouighi-ren arabera, Ibn Şagīr-en kronika ikertuta, eremu horretako konfigurazio politikoak eta indar-harremanek eragin erabakigarria dute gizarte-mundua eta haren mobilizazioa deskribatzeko erabiltzen diren kategoriak egiteko unean. Honela, kategorizazio bat, botere-harremanak adierazteko esparru gisa erabiltzen da. Beraz, identitate aldarrikapenak, berebere eta arabiarrenak, talde edo leinu baten nagusitasun politikoa baieztatzeko prozesuarekin sistematikoki harremanetan jarri daiteke (Nef 2021: 25 - 26).

Rouighi-k azaltzen duen *bereberizazio* prozesuan, berebere kategoria *dār al-Islām* konkistatutako eskualdeak eta bere biztanleak klasifikazio eta izendatzeko beharrean sortzen da. Honela, boterea erreklamatzeko forma bat bereberentzat hartzen den *nisba*⁷ baten aldarrikapenaren bidez egingo da, talde edo leinu jakin baten nagusitasun politikoa baieztatzeko prozesuarekin lotu behar dena (Nef 2021: 27). Honek, berebere *gens*-aren

⁶ Ibn Şagīr, historiagilea zen, Tahert-eko Rustamtar imanei buruzko kronika baten egilea. Haren lana Afrika iparraldeko ibadieie buruzko lehen dokumentua da. Autoreak Tahert-eko zenbait pertsonak kontatutako kontakizunak erabili zituen oinarritzko iturri gisa, batez ere bere arbasoen gertaeren bertsioa erlazionatzen zuen bere kronika osatzeko (*E. I.* - III: 924).

⁷ Jatorri-adjektiboa, erlazio genealogikoak, etnikoak, geografikoak eta abar adierazten dituen (Maíllo 1996: 175).

kideak, bere talde etniko kategoria politiko eta moral berebereak erabiliz definitu zirenetik existitzen direla azpimarratzen du. Wenskusen etnogenesiaren teoriarekin bat eginda, balio eta arau jakin batzuen arabera bizi beharko luketela sinistu zuten, eta honela, etnia kristalizazioaren prozesu hasiko zen.

4.8 Etsai baten aurrean sortutako *gens*-a

Berebereen etnia, VIII. mendean arabiarren konkista ematen denean kristalizatzen dela esango bagenu, argi geratzen da, etsai boteretsu baten aurkako lehia eta defentsa momentu batean sortzen den etnia dela. *Dār al-Islām* eraman zuen konkistaren ondorioz, beharrezko baldintzak sortu ziren *gens* berri bat sortzeko, etsai komun baten aurka borroka egiteko, askoz ere indartsuago eta jendetsuagoa. Diskurtso honek, Wolfram-en lehenengo etnogenesi tipo-arekin bat egiten du, bertan defenditzen da etnogenesiaren gertaera etsai baten aurkako borrokaren ondorioz sortzen dela, non arrisku baten aurrean beharrezkoa izan den *gens* bat osatzea. Beraz, etsai baten aurrean sortutako etnia hau, etsai horrekin batera etorri den kategorizazio batekin ematen dela azpimarra daiteke, beste kategoria baten oposizioan sortzen dena, kasu honetan arabiarra. Berebereak arabiarren oposizioaren ispilua izango dira, Antzinatean *mauriak* erromatarren oposizioaren erantzun izan ziren bezala (Modéran 2003: 449).

Ez dago VIII. mendean berebere deitu ziren protagonisten iturri idatzirik, beraz, bere burua berebere bezala identifikatu zutenaren hausnarketa egingo bagenu, erantzuna irekia izango litzateke. Inongo zalantzarik gabe, posibilitate bat da *gens* honetan bildu ziren talde askotarikoak berebere etniaren prozesua ukatzea, eta soilik etsaiak ezarritako kategorizazioaren barne kokatuak izatea, eta honela denbora aurrera egin ahala, etsaiak ezarritako baldintzak, esaterako, arabiarren nagusitasuna ezartzea, bere identitate aldarrikapenak bultzatu izana. VIII. mendean berebere etnia osatzen zuten tribuek, beren identitate prozesua azeleratuko zuten, eta hauen ezaugarriak are gehiago nabarmenduko ziren, bere tribuetako identitatea mantenduz, modu global batean berebere etnia osatuz. Honela, etnizitate honi bere ezaugarri berezia gehitzen zaio: komunitate aniztasunaren onarpena *gens* propio baten barruan. Arabiarrak ezarritako kategoria izanda, baliteke, tribu hauek beren boterea aldarrikatzeko modu bezala izatea, zeinak *nisba* bat izateko bere burua etnikoki berebere kontsideratuak izan ziren (Nef 2021: 26).

Ezin da jakin ordea, ezarritako etnia kontzientzia honek nolako prozesua izan zuen berebere tribuen onarpen marko sozialean. Komunitate etniko berri honen kategorizazio eta

etnizitate prozesua beraiek aukeratua edo inposatua den baieztatu gabe, suposatu daiteke, konkista momentuan izan ziren errebolta eta mehatxuak etnia baten parte izatea bultzatu zuela, Magrebeko tribuen artean, nolabaiteko “anaitasun” sentimendua sortuz, kanpotik datozen etsai komun baten aurrean.

4.9 Berebereen erresistentzia etnia sorkuntzaren bide ?

*Dār al-Islām*aren konkista garaian egondako berebere erresistentzia, etnia honen identitatea eraikitzekeo gai nagusia izan da. Honako hau arabiar-musulmanen historiografiatik dugu ezaguna. Beraz, garai honetan deituriko berebere etniek jokatutako rola edo erresistentzia akzioak irudi irrealak eman ditzake, iturriak protagonista baten aldetik idatziak daudelako, arabiarrengandik eta ez Magreb okupatzen duten tribu hauengandik. Honako hau, arabiar konkistaren errepresentazio txiki bat da. Adibidez, Kāhina⁸, arabiar-islamaren lehen inbasioetan erail zuten Zanāta tribuko erregina izan zen eta Ibn Jaldūnen kronikan agertzen den bezala, arabiar lider baten ezaugarriekin deskribatzen da, indartsua eta edonoren kontra borroka dezakeena (Cheny 2021: 45).

« *La Kahena mena ses troupes contre les Musulmans, et les attaquant avec un acharnement extrême, elle les força à prendre la fuite après leur avoir tué beaucoup de monde. [...] La Kahena rentra dans son pays, et ayant adopté pour troisième fils son prisonnier Khaled, elle continua, pendant cinq ans à régner sur l'Ifrîkiā et à gouverner les Berbères. [...] La Kahena elle-même fut tué dans le Mont-Auras, à un endroit que l'on appelle, jusqu'à ce jour, Bîr-el-Kahena (le puits de lu Kahena). L'offre d'une amnistie générale décida les vaincus à embrasser l'islamisme, à reconnaître l'autorité du gouvernement arabe et à fournir une contingent de douze mille guerriers à Hassan. La sincérité de leur conversion fut attestée par leur conduite subséquente* » (KI: 213-214)

⁸ Kāhina lider berebere bat zen, eta bere herria gidatu zuen VII. mendean Afrika iparraldeko inbasio arabiarren aurka. Jaiotzez Dihya zuen izena, baina historian zehar izen ezberdinez ezagutua izan da. Bere bizitzaz ezer gutxi jakin arren, armada bat antolatzekeo gai izan zen indar inbaditzaile bat garaitzekeo, kasu honetan, Omeiatar tropak Ḥasān ibn al-Nuʿmān buruzagiaren azpian. Bere bizitza militarra laburra izan zen. Arabiar armadarekin zenbait konpromiso hartu ondoren, azkenean Kāhinaren tropak garaitu egin zituzten, eta beren heriotza ekarri zuten (Boudraa eta Krauseb 2022: 2).

Ezaugarri bereizgarri hauek arabiarren irudimenaren baitan sortzen diren errepresentazioak izan daitezke, eta identitate kristalizazio desira bat gorde dezakete. Agian, heroi hauetan islatutako pertsonifikazioak, izango dira berebere etniaren eraikuntzaren beste elementu bat, arabiarren kroniken baitan sortuko dena. Kāhina bezalako pertsonaiek bere etsaia goraiatzeko modura azaltzen dira, behin hauek erailda konkistatzaile jeneralak izango baitira miretsiak izango direnak. Era berean, berebere kontsideratzen diren horien “heroiak” bihurtuko dira, eta bere identitate diskurtsoan sartuko dituzte, erresistentzia tradizio bat sortzen (Cheny 2021: 45 - 54).

5. ONDORIOAK

Etnogenesiaren teoriaren garapenean eztabaidatu diren ikuspuntuak berebereak noiz eta zergatik sortu ziren hausnartzera bultzatu du. Hizkuntza, talde linguistikoa sortzean, edo botere-harremanak, gerra edo kategorizazio politikoa ematean, irizpide garrantzitsuak bihurtu dira etnia honen kristalizazioa gauzatzeko. Hala ere, VII. mende eta VIII. mendeko iturri faltak narrazio honen hutsunea sortzen du, eta hau betetzeko kritikoki aztertu behar dira bere inguruan sortu diren iturri historiografikoak, esaterako, Kaesareako Prokopioaren *maurien* inguruko deskripzioak edo Ibn Jaldūnen kronikak. Bi mendeen arteko iturririk ez egoteak etnia honen agerpena ezagutzea galarazten du. Gainera, tribu hauen hizkuntza ez-idatzia zelako, ditugun iturri guztiak inbasio ezberdinen ondoriozkoak dira, hots, kanpotik datozen kronisten, geografo eta gerlarien idatziak. Beraz, kategorizazio hauen sorkuntza eta bere identitate formazioa kanpotik ezarritakoa izan da, kontaketa mitikoan oinarritzen dena eta honek interpretazio ugari sor ditzake. Etnogenesiaren azterketa historiagileen ikuspuntu ezberdinak baldintzatuko du, iturri historiografiko ezberdinetan oinarrituko dira, eta hauek mitoaz osatutako kontakizunak direnez, oraingoz irekita dagoen prozesu batean aurkitzen gara.

Testuingurua kontuan hartuta, arabiar-islamiko konkista ezinbestekoa izan zen etnia hau bere osotasunean ulertzeko eta bere identitatea garatzeko, bertan eman zelako lehen aldiz Magrebeko populazioaren kategorizazio homogenea. Ziurrenik VIII. mendean eman zen gatazka garaia beharrezko baldintzak sortu zituen populazio honen etnia agertzeko. Hala ere, berebere etnia noiz sortu den ezartzeak, oraindik, ulermen bide asko ditu. Gehienbat, historialari batzuek bere etnia abiapuntua garai honetan ezartzen duten bitartean, beste batzuek etnia hau lehenago osatuta zegoela ezartzen dutelako. Azken hauek berebereak izatez *mauriak* Zanāta tribuaren herentzia direla, eta kategorizazio aldaketarekin Zanāta soilik

Zanāta berebere bihurtu zela aldarrikatzen dute. Hortaz, bi kategorizazio hauen arteko lotura ezartzea ez da erraza, eta beraz, berebere etniaren kristalizazioa non oinarritzen den aldarrikatzea iturri historiografikoen interpretazioa egitea da.

Historian zehar berebereak bere protagonista roletik baztertuak izan dira, horregatik historiagile berriak akats hau zuzentzen saiatu dira, herri honi beharrezko lekua emanez. Ondorengo lanetan, bide honetan jarraitu beharko da, berebereen historia bere ikuspuntutik aztertzen. Identitate formakuntzan sakondu beharko da, bai *mauriak* zeintzuk ziren eta bai berebere kategoriak zein indibiduo bildu zituen ikertzen. Arabiar edo Bizantziar ikuspuntutik aztertu izan da hauen historia, eta lanketa hau Magrebeko populazioen ikuspuntutik ezartzea ezinbestekoa izango da, historia beste modu batera azaltzeko. Ikerketa hau historiaren ezaugarri nagusienetako batean murgilduta dago: bere izaera bizidunean. Izan ere, oraindik etnia honen etnogenesisia zein baldintzetan eman zen sakontzeko dago. Etnia bereberearen sorkuntza, euskaldunena bezala, bizirik jarraitzen duen auzia da.

6. BIBLIOGRAFIA

a) Lehen mailako iturriak

(DBL) Corippus (Flavius Cresconius Corippus): *Johannis o De bellis Libycis*. Itz. Didderen, J.C. (2007): *La Johannide ou sur les Guerres de Libye*. Editions Errance, Paris.

(FIAa) Ibn ʿAbd al-Ḥakam (ʿAbd al-Raḥmān ibn ʿAbd Allāh ibn ʿAbd al-Ḥakam): *Futūḥ lfrīqiya wa-l-Andalus*. Ed. & itz. Alber Gateau (1947): *Conquête de l'Afrique du Nord et de l'Espagne*, Éditions Carbonel, Aljer.

(FIAb): Ibn ʿAbd al-Ḥakam (ʿAbd al-Raḥmān ibn ʿAbd Allāh ibn ʿAbd al-Ḥakam): *Futūḥ lfrīqiya wa-l-Andalus*. Itz. Hilloowala , Y. (1998): *The History of the Conquest of Egypt, being a partial translation of Ibn Abd al-Hakam's Futuh Misr and an analysis of this translation*, Doktoretza-tesia, University of Arizona. <http://arizona.openrepository.com/arizona/handle/10150/282810> (2022/05/22 kontsultatua)

(HGV) Kaesareako Prokopio: *Historia de las Guerras. Libros III-IV. Guerra vándala*. Itz. Flores Rubio Jose Antonio (2006). Gredos, Madril.

(KI) Ibn Jaldūn (Abū Zayd ʿAbd al-Raḥmān ibn Muḥammad ibn Jaldūn): *Kitāb al-ʿibār wa-dīwān al-mubtadāʾ wa-l-jabar fī tāʾrīj al-ʿarab wa-l-barbar*. Itz M. le Baron de Slane (1852): *Histoire des Berbères et des dynasties musulmanes de l'Afrique septentrionale*. Imprimerie du Gouvernement, Aljer.

b) Bigarren mailako iturriak

Amara, Allaoua (2021): “L'évolution du discours sur les berbères”, in *Les Berbères entre Maghreb et Mashreq (VII^e-XV^e siècles)* (ed. V. Dominique), Casa de Velázquez, Madril.

Barth, Frederik (1976): *Los grupos étnicos y sus fronteras; La organización social de las diferencias culturales*, Fondo de Cultura Económica, México DF.

Boudraa, Nabil eta Krauseb, Joseph (2022): *Women and resistance in the Maghreb, remembering Kāhina*, CMED, Londres eta New York.

Bremond, Edouard (1942): *Berbères et Arabes. La berbérie est un pays européen*, Payot, Paris.

Brett, Michael & Fentress, Elizabeth (1996): *The Berbers*. Blackwell Publishing, Malden, Oxford & Victoria.

Camps, Gabriel (1995): *Les Berbères, mémoire et identité*, Errance, Paris.

Cheny, Soléna (2021): "Approches historiographiques du discours de la résistance berbère", in *Les Berbères entre Maghreb et Mashreq (VII^e-XV^e siècles)* (ed. V. Dominique), Casa de Velázquez, Madril.

De Felipe, Helena

--- (1990): *Leyendas árabes sobre el origen de los bereberes*. Al-Qantara, 11(2), 379 - 396 or.

--- (1997): *Identidad y Onomástica de los Bereberes de al-Andalus*, Consejo de Superior de Investigaciones Científicas, Madril.

Dominique, Valérian (2021): *Les Berbères entre Maghreb et Mashreq (VII^e-XV^e siècles)*, Casa de Velázquez, Madril.

Encyclopaedia of Islam, 2. Edizioa (1960 - 2005), 12 bol. Leiden: Brill.

Geary, Patrick (1988): *Before France and Germany, The creation and transformation of the merovingian world*, Oxford University Press, New York.

Hilloowala, Yasmin (1998): *The History of the Conquest of Egypt, being a partial translation of Ibn Abd al-Hakam's Futuh Misr and an analysis of this translation*, Doktoretza-tesia, University of Arizona.

<http://arizona.openrepository.com/arizona/handle/10150/282810> , 2022/05/22 kontsultatua

Kaspersky, Robert (2015): “Ethnicity, ethnogenesis, and the vandals: some remarks on a theory of emergence of the barbarian *gens*”, *Acta Poloniae Historica*, 112 zb, 201- 242 or.

Nef, Annliese (2021): “L’invention des berbères”, In. *Les Berbères entre Maghreb et Mashreq (VII^e-XV^e siècles)* (ed. V. Dominique), Casa de Velázquez, Madril.

Norris, Harry T. (1982): *The Berbers in Arabic Literature*, Longman Group, Londres.

Maillo, Felipe (1996): *Vocabulario de Historia Arabe e Islámica*, Akal, Madril.

Marcela, María (2017): “Etnogénesis, relatos de origen, etnicidad e identidad étnica: en torno a los conceptos y sus definiciones”, *Anales de Historia Antigua, Medieval y Moderna*, 51 zb, 71-86 or.

Modéran, Yves (2003): *Les Maures et l’Afrique romaine (IV^e-VII^e siècles)*, Publications de l’École française de Rome, Erroma.

Pouessel, Stéphanie (2011): *Les Identités amazighes au Maroc*. Non Lieu - Edif 2000, Paris.

Rouighi, Ramzi

--- (2011): “The Berbers of the Arab ”, *Studia Islamica*, 106 zb, 49-76 or.

--- (2019): *Inventing the Berbers. History and Ideology in the Maghrib*, University of Pennsylvania Press, Filadelfia.

--- (2021): “La berbérisation et ses masques”, In. *Les Berbères entre Maghreb et Mashreq (VII^e-XV^e siècles)* (ed. V. Dominique), Casa de Velázquez, Madril.

Pohl, Walter (2002): “Ethnicity, Theory, and Tradition: A Response”, in *On Barbarian Identity. Critical Approaches to Ethnicity in the Early Middle Ages* (ed. A. Gillett). Brepols, Turnhout.

Wolfram, Herwig (1990): “Le genre de l’origo gentis”, *Revue belge de philologie et d’histoire*, t. 68-4, , 789-801 or.